

Ondorio txostena



#GazteokBizikidetzan
NAZIOARTEKO
BAKEAREN EGUNA
DÍA INTERNACIONAL DE LA PAZ
2017 09 21
BILBO



Euskadiko
Gazteriaren
Kontseilua

Consejo de
la Juventud
de Euskadi



LEHENDAKARITZA
Giza Eskubide, Bizikidetz
eta Lankidetzaren Idazkaritza Nagusia
Biktimen eta Giza Eskubideen Zuzendaritza
PRESIDENCIA
Secretaría General de Derechos Humanos,
Convivencia y Cooperación
Dirección de Víctimas y Derechos Humanos



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

ENPLEGU ETA GIZARTE
POLITIKETAKO SAILA
DEPARTAMENTO DE EMPLEO
Y POLÍTICAS SOCIALES



EMAKUNDE
EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE LA MUJER

Eusko Jaurlaritzako erakunde autonomiaduna
Organismo Autónomo del Gobierno Vasco



#GazteokBizikidetzan : Nazioarteko Bakearen Eguneko ondorioak

Ondorengo dokumentuan pasa den irailaren 21ean Bilbon Nazioarteko Bakearen Egunaren omenez ospatutako [#GazteokBizikidetzan](#) ekitaldian izandako gogoeta eta ondorioak jasotzen dira. Ekitaldi hau gazteok bizikidetzari dagokionez egun ditugun konpromisoen inguruan eta baita etorkizunari eskatzen dizkiogun desiren inguruan gogoeta bat egitera zuzendua egon zen.

Euskadiko Gazteriaren Kontseilua (EGK) Bake eta Bizikidetzaren lan-arloko lan ildo berriak definitzen dagoenez, hemendik ateratako proposamen eta gogoetak etorkizunean lantalde honek hartuko duen norabidea definitzen joateko lagunduko dute. Halaber, ekintza hau Bilboko Udalak sustatu duen '[Bilbo balioen hiria](#)' proiektuarekin bat dator.

Ekitaldiaren helburua gazteok bizikidetzari dagokionez ditugun kezka, eskaera eta proposamenak mahai gainean jartzea eta hauen azterketa bat egitea izan zen.

Horretarako gazte talde oparo eta anitz bat lortu genuen; batzuk izen-ematea alde aurretik egin zuten, beste batzuk antzezlan ikustean gehitu ziren ekitaldira eta azkenik ekintzara espontaneoki gerturatu ziren batzuk. Ekintza bi hizkuntzatan burutu zen eta bakoitza eroso sentitzen zen hizkuntzan parte har zezakeen (euskara edo gaztelania).

Aniztasuna taldearen ezaugarri zen eta azpimarratu beharreko zerbait da hau, Bizikidetzaz hitz egiterakoan balore garrantzitsutzat jotzen baitu EGK-k.

Abiapuntua: bizikidetzarekiko zailtasunak eta sentimendu kontraesankorrak.

Ekintza [Plataforma Tirante](#) izeneko kolektibo artistikoaren 'Tras la Frontera' antzezlanarekin hasi zen. Antzerki-lan hau CEAREN (Errefuxiatuei Laguntzeko Espainiako Batzordea) '[Memorias compartidas](#)' proiektutik sortu zen. Honek asiloaren gaia lantzen du eta errefuxiatuek gaur egun beraien jatorriko hiriak derrigortuta utzi ostean aurre egin behar dioten zailtasun eta oztopoez hitz egiten du.

Antzerki-lan honek ikusleari hitz egiten dio, ikuskizunaren parte egiten du. Hori dela-eta antzerkia ikusleen artean emozioak pizteko erabiltzea nahi izan genuen, horiek ondorengo ekintza parte hartzailean aztertu eta lantzeko.

Pertsona gazteei antzezlan ikusi ostean sentitu zituzten emozio eta pentsamenduak taldearekin banatzea proposatu genien eta hau da emaitza:

Antzezlanarekin lotutako hitzak

*Tristura Esklusioa Berdintasun eza Askatasun eza
Ziurgabetasuna Bidegabekeria **Inpotentzia**
Itxaropena (egite komunitarioan) **Itxurakeria**
Sufrimendua Zortea Amorrua Etsipena **Larritasuna**
Shock Arbitrariotasuna **Engainua**
Horrelako egoera batean zer egin daitekeen ez jakitea
Faltsukeria Laguntza eza*

Salbuespen bat izan ezik, 'itxaropena', batez ere komunitate-ekintzara lotuta dagoena, hitz guztiek kutsu negatibo bat dute. Parte-hartzaile guztiak bat zetozen antzezlanak asilo bila dabiltzan pertsonak pairatzen duten bidegabekeria islatzen duela. Pertsona hauek sentitzen duten larritasun eta beldurrarekin enpatia sentitu zuten.

Antzezlanean hainbat giza eskubide urratzen direla aitortu zuten eta islatzen zen egoera 'bidegabea' zela iruditzen zitzaien, berdintasun eza eta esklusioa zekarrelako.

Antzezlanak barrenak astintzearen ondorioz, parte-hartzaileek arrotza den herrialde batera egin beharreko bidaia anker hori lehenengo pertsonan bizi izanaren sententzia zuten. Antzerki-lanak giza eskubideen urraketa bat jasaten duen pertsona baten lekuan egotea nola izango litzatekeen irudikatzea lagundu zien. Horrek gogoeta kritiko bat sortu zuen giza eskubideen urraketa horrekiko. Egoera konkretu baten bidegabekeria ikusteak gauzak nola izan beharko liratekeen pentsarazi zien. Azken batean, bizikidetzan bizi ahal izateko errealitatea nolako izan beharko litzatekeen.

Egungo konpromisoa: eraldaketarako espazio pertsonala.

Antzerki lanaren ostean izandako ideien hartu-eman eta gero, parte-hartzaileak 6-7 pertsonako hiru taldetan banatu ziren, plastikoki horma ezberdinetan egun bizikidetzarekiko duten konpromisoa islatu zezaten. Dinamika hasteko proposatutako galdera ondorengoak izan ziren:

Zer da zuretzako bizikidetzak? Zein da bizikidetzarekiko egun duzun konpromisoa?

Hauek izan ziren taldeen gogoetak.

1. taldea

Talde honek elkar ulertzerako orduan komunikazioak duen garrantzia azpimarratu zuen. Anitza, plurala eta kultura ezberdinak dauden gizarte batean, ezinbestekoa da

komunikatzeko gaitasuna izatea, ezberdina dena ulertzeko eta errespetatzeko gaitasuna izatea.

Hormak hausteko beharraz hitz egin zuten, desberdinak izateagatik bakarrik banatu egiten gaituztelako horma horiek. Gazte hauek muga eta hesi horiek desegiteko komunikazioa lantzea proposatu zuen.

Talde honetako pertsona batek elkarri loturiko bi esku irudikatu zituen, zeinu-hizkuntzan 'elkartasun' hitza adierazten baitu irudi horrek. Beste gazte batek bizikidetzatza "pertsona eta kultura guztien arteko elkartasun" bezala definitu zuen.

'Bakearen' kontzeptua ere mahai gainean jartzeaz gain, esaten zuten pertsona batzuentzat baketsua den gizarte baten bizitzea pribilegio bat dela, azken finean, hau aurrera eraman ahal izateko hainbat zailtasun eta erronka daudelako. Zapalduta dagoen gizarte batentzat, adibidez. Jende guztiak ez duela gizarte baketsu baten bizitzeko aukera esan zuen gazte batek.

2. taldea

Bizikidetzatza kontzeptu abstraktu bat dela esaten hasi ziren gazte hauek eta horregatik hasiera batean ideia horren inguruko ideiak irudikatzen hastea kosta egin zitzaiela. Pixkanaka 'aniztasuna' irudikatzen zuten pertsona ezberdinen marrazkiak egiten hasi ziren horman. Bizikidetzatza aniztasunaren ideia honetatik abiatuz definitzen hasi ziren. Aniztasuna beste hainbat baloreen erdian jarri zuten: 'askatasuna', 'berdintasuna', 'elkartasuna', 'errespetua', 'itxaropena' eta 'onarpenera', adibidez.

3. taldea

Hirugarren taldeak bizikidetzatza lantzeko haurren ikuspegi bakuna berreskuratu zuen, hainbat jatorriko pertsonak garen arren, elkartzen gaituena azpimarratuz. Beraiek esandakoaren arabera, pausoz-pauso, tantaz- tanta, aldaketa txikiak eman daitezke eta hauek eraldaketa handiak sortu ditzakete gizartean, egungo bidegabekeriei amaiera emanez.

Pertsonak aldaketetara moldatzeko eta hazteko dugun gaitasuna nabarmendu zuten.

"Ni bezala, instituzio, elkarte edo GKE-ekin zuzenean elkarlanean ez gabiltzan pertsonok, baina errefuxiatuei (haien jatorria kontuan izan gabe) harrera on bat egiteaz arduratzen garenok, uste dut lagundu diezaikegula beraien egunerokotasuna errazago egiten, normaltasunez eramaten, entzuten, irribarre bat oparitzen, beraien errutina gure artean eramangarriagoa eginez. Ez dira arrotzak, ez gaizkileak ezta beraien egoeraren errudun. Aukera bat merezi dute, gure ulermena eta maitasuna. Ez diegu merezi duten tratua eta errespetua ematen!"

Hiru taldeek egun gizartean dugun identitate, orientazio, jatorri, etnia... aniztasuna eta honi zor beharreko errespetua nabarmendu zuten. Bigarren taldeko gazte batek esan zuen “nire askatasuna bestearena hasten den momentuan amaitzen da”. Beste parte-hartzaile guztiak garrantzitsutzat jo zuten ideia eta honekin bat egin zuten.

Etorkizunari begira: ‘Desiren putzua’

Azkenik eta ekitaldiaren itxiera egiteko, banaka txarteletan bizikidetzarekiko etorkizunerako desira bat idaztea proposatu genien gazteei. Desira hori, azkenik, ‘Desiren putzua’n (ur putzu baten itxura zuen ontzi batean) sartu zuten; EGK-k beranduago berreskuratu eta proposamen bezala jaso ahal izateko. Ekintza honen helburua bikoitza zen:

- Alde batetik, beraien Bizikidetzaren eredu idealaren isla ez den oraingo egoera bat identifikatzea.
- Bestetik, bidegabea den egoera hori errealia ez den iruditegi batean pentsa zezaten eta aldaketa sorrarazteko argibideak eman ahal izatea.

Era honetara, ekintzak Bizikidetzari dagokionez hobekuntzak behar dituzten arloak identifikatzea baimentzen digu, baita gazteen gizarte ideala zein den ikustea.

Hauek dira putzuan jasotako desiren transkripzioak:

1. *“Hau hurrengo batean irakurtzen denerako espero dut gobernuak beste jarrera bat hartu izana errefuxiatuekiko”.*
2. *“Epe luzerako konpromiso politikoa, Giza Eskubideak guztiontzat, emakume zein gizonentzat”.*
3. *“Harresi desberdinak apurtu ahal izatea eta askatasun desira egi bilakatzea”.*
4. *“Gu hezitu ez gaituzten bezala etorkizuneko umeak heztea gustatuko litzaidake. Gustuko ez duguna ere errespetatzen ikastea”.*
5. *“Gustatuko litzaidake pertsona guztiak jakitea beste batzuk errespetatzen eta lurralde desberdinetan integratuak egotea. %100ean marginaziorik ez egotea”.*
6. *“Bizikidetzaren alde elkarturik lan egiten duen eta hau errespetatzen duen gizarte bat, kasu honetan, balore batzuk dituen gazteria ikustea gustatuko litzaidake. Administrazioekin bat lan egiteko aukera eta horrelako gogoetak egiten jarraitzea”.*
7. *“Printzipioak eta errespetua inoiz ez galtzea”.*
8. *“Espero dut urte batzuen buruan, izango naizen mediku gisa, nigan hoberena eman ahal izatea egunero niregana datorren PERTSONA orok laguntza bat izan naitekeela jakiteko konfiantza beste izan dezan. Nire begiak haratago begiratzeko”.*

gai izatea nahi dut eta osatu eta, batez ere, zaindu ahal izateko aurreiritziak gaindituz bizitzeko gai izatea”.

9. *“Bizikidetzaz gehiago hitz egin behar ez izatea lortzea jada gizarteak, eragileek eta pertsonak barneratu dutelako”.*
10. *“Pertsona guztiak desberdinak izan arren era berdinean onartzea”.*
11. *“Errefuxiatuak seguru sentitzea, beste lurraldean plaza bat lortzeko lehiari baleuden bezala egoera gogorak pasa behar ez izatea gustatuko litzaidake”.*
12. **“BERDINTASUNA”.**
13. *“Batasun, enpatia, maitasun eta kontzientziaz aurrera egiten duen mundu bat desiratzen dut. Gure irribarrerik hoberenak sorrarazteko eta elkarri malkoak lehertzeko elkarrekin lan egitea”.*
14. *“Bidegabekeriaren bukaera. Berdintasun gehiago. Bizikidetzaz gehiago eta hobeagoa”.*
15. *“Aniztasuna gizartearen integratutako balore bat izatea”.*
16. *“Guztiok berdintasun maila berdina izatea eta guztiok bake berdina izatea eta gure artean desberdintasunik ez egotea”.*
17. *“Gehiengoak aintzat hartzea bakoitzaren askatasuna lagun hurkoarena bukatzen den lekuan hasten dela”.*
18. *“Ikuspegi kritiko batetik aztertu Euskadin bizitako gertakari ankerrak. Orrialdea ez dadila pasa gizarteak idatzi eta ondoren irakurri gabe”.*

Ikusi ahal izan den bezala, gazteen etorkizunerako desirak gai desberdinak jorratzen dituzte. Edonola ere, puntu amankomunak eta elkarren arteko loturak ikusten ditugu, ondorio orokor batzuetara iritsiz:

- Konpromiso sozial eta politikoa

Gazteen desirak gizarte konpromisoaren norabidearen beharraz hitz egiten dute, hau da, hiritarrak orokorrean eta pertsona bakoitza maila indibidualean inplikatzearaz. Honekin batera instituzioen mailako konpromiso politikoaz hitz egiten da, Bizikidetzaz errealitate bat izan dadin.

Konpromiso politikoaren dimentsioa aipatzean, gazteek adierazten dute eskubide eta askatasunak berdintzea errealitate izateko beharra dagoela. Era berean, komunitate-sare handiagoa sortzeko gizartearen berriz indartzeko beharra aipatzen da.

- Begirada berria

Gazteek adierazten dute beharrezkoa dela errespetutik, enpatia oinarri, jaiotzen den begirada bat izatea. Era berean, Aniztasuna desberdin izateko eskubidea defendatzen duen balore gisa ulertzea eskatzen dute.

- Gai konkrituak eta Euskadiko beharrei egokituak

Nahiz eta desira gehienak era orokorragoan sortuak izan diren, gai konkrituak aipatu dituzten pertsonak ere egon dira. Hauek aipaturiko gaiak ondokoak izan dira: errefuxiatuen errealitatea eta harrera lurraldeen jarrera gogoetarako esparru gisa eta Euskadiko memoria kolektiboa oraindik ere itxiera bidean dagoen prozesu bezala.

Idea guzti hauek EGKren Bakea eta Bizikidetzeta lan-arloaren diskurtsoa eta lantaldearen lan-ildoak definitzen joateko balio izango dute. Era berean, egun gure testuinguruan dugun errealitatearen ebaluazioa egitea eta etorkizunerako hobekuntza desiretan pentsatzea baimentzen digu.

Itxiera modura

#GazteokBizikidetzan ekitaldiaren helburua gazteok Euskadiko egungo bizikidetzeta egoeraren irakurketa egitean zetzan. Errealitatearen gogoeta kritiko bat sorraraztea bizikidetzan oinarritutakoa eta partekatua den etorkizun bat lortu ahal izateko proposamenak eta hobekuntza puntuak identifikatzeko.

Egungo irakurketa bat egiteak ezinbestean eramaten gaitu iraganeko beste belaunaldi batzuk aurre egin behar izan zieten bizikidetzako beste erronka batzuk aztertzeraz. Antzezlanak behin eta berriz gogorarazten zigun iragan hori errepikatu egiten dela eta hori iragana ahaztu ez dezagun alerta bat dela.

Honek ezinbestean egun daukagun bizikidetzeta mailaz gogoeta egitera eramaten gaitu, hau lortzeko gure gizarteak dituen erronkak identifikatzera eramaten gaitu.

Komunikazioa, aniztasunarekiko errespetua eta pluraltasuna eta batasuna dira Bizikidetzarekiko konpromisoaz hitz egiterakoan parte-hartzaile gazteen artean indar gehiagorekin agertzen diren ideiak. Baina pertsona kritikoak ere badira eta egun Euskadin ematen den bereizketa egoeraz kontziente dira. Horrela, berdintasuna eskatzen dute, desberdintasunekiko errespetuan oinarritutako berdintasun bat.

Era honetara, EGKren Bakea eta Bizikidetzeta arloko ildo orokorrak definituz doaz, hauek izango direlarik Euskadiko Bizikidetzeta egoerarengan eragina duten arazo lokal eta globalei erantzuna emateko gakoak.